BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1205

AGINDUA, 2014ko otsailaren 21ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Amurrioko (Araba) «Amurrio» musika-eskola publikoari musika-espezialitateak gehitzeko baimena emateko dena.

Aztertuta geratu da Amurrioko (Araba) «Amurrio» musika-eskola publikoak musika-espezialitateak gehitzeko egin duen baimen-eskaera.

Espediente hori Arabako Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren II. kapituluan ezartzen da irakasleei musika-eskoletan irakatsi ahal izateko eskatzen zaien titulazioa (289/1992 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoa, arautu gabea, ematen duten ikastegiak –musika-eskolak– sortzea eta horien jarduna arautzen duena; 1993ko urtarrilaren 4ko EHAA).

Indarrean dauden legeak ikusi ondoren eta arauz eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla kontuan harturik, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– 2014-2015 ikasturtetik aurrera «Bateria» musika-espezialitatea irakasteko baimena ematen zaio ondoren zehazten den ikastetxeari:

Kode-zenbakia: 01002661.
Izen espezifikoa: «Amurrio».
Titularra: Amurrioko Udala.
Helbidea: Etxegoien z/g.
Udalerria: Amurrio.
Lurralde historikoa: Araba.

Ikastetxe horretan irakaskuntza hauek emango dira:

● Mailak: 1., 2., 3. eta 4.a.

● Adarrak:

– Kantua: bakarlaria eta korua.
– Instrumentu sinfonikoak: biolina, biolontxeloa, txirula, oboea, fagota, klarinetea, tronpa, tronboia, perkusioa, saxofoia, tronpeta eta kontrabaxua.
– Instrumentu polifonikoak: pianoa, akordeoia, eta gitarra.
– Bertako instrumentuak: txistua.
– Zenbait joera: gitarra elektrikoa, teklatuak, baxu elektrikoa eta bateria.

2. artikulua.– Indarrean dauden legeak betetzera beharturik gelditzen da ikastetxea irakasleen titulazio akademikoari dagokionez. Bestela, bidezkoa litzateke emandako baimena baliogabetzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 21a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.